

Oñati Gipuzkoan sartzea (1845. urtea)

Gaur egungo Euskal Herriko zati bat Euskal Autonomia Erkidegoa da. Hau Bizkai, Araba eta Gipuzkoa probintziek osatzen dute. Gaur egun, Oñati Gipuzkoaren parte da, baina hori ez da betidanik horrela izan.

Oñati 1845. urtera arte Gebaratarren menpeko konderrri bat izan zen. Ondoko lurraldeekin harremana zuen baina ordura arte ez zen Gipuzkoaren parte izan. Garai hartan, herrian iritzi diferentek zeuden. Batzuk Gipuzkoan sartu nahi zuten eta beste batzuk ez.



Herritarrentzako Gipuzkoarena ez zen hain gauza inportantea. Herri-tarrei herriko giroa gehiago inporta zitzaien, Unibertsitatea institutu bihurtu zenetik mugimendu gutxiago zegoelako herrian.

Auzotarrek, Araozkoek batez ere, nahiago zuten Arabarekin batu haiekin harreman gehiago zutelako. Gainera, kaletarrek ika-mikak izaten zituzten erabakiak hartzeko orduan. Haien ustez, beti baseritarrek ahaztu egiten baitziren eta ez zituzten kontutan hartzen.



Jauntxoen ustez, Oñati gero eta atzeratuago geratzen ari zen. Inguruko herrietan gero eta jende eta komertzio gehiago zegoen eta Oñatin ez. Gipuzkoan sartzeak diru gehiago ekarriko zuela uste zuten eta horregatik jauntxoek ahalik eta azkarren Gipuzkoan sartzea nahi zuten.

Azkenean, kontzejura hurbildu zirenen bozkekin erabaki zen Oñati Gipuzkoan sartzea. Hau 1845eko irailaren 11n gertatu zen.

